

MUGIKORTASUN PLANAREN BALORAZIOA = LEGAZPI =

Proposatutako bide eta biribilgune berrien balorazioa orientabide moduan baizik ez da egiten, hartu beharreko erabakiak hartu ahal izateko oinarri batzuk edukitzeko baino ez. Honenbestez, aurrekontu zehatza behar du izan burura eraman nahi den konponbide edo jarduera bakoitzak.

Bide berrien gaineko balorazioak Mugikortasun Planean proposatutakoen antzeko sekzioak bururatu daitezkeela gogoan edukita egin dira, baina baliteke kasuren batean gehiegizkoa izatea bide berriari leku egingo dion tokiaren ezaugarriak kontuan harturik.

Jarduera batzuk interbentzio txiki batzuekin bururatu daitezke, edo kalitatezko elementuekin planteatu daitezke; esate baterako, bidegorria: nahikoa izan liteke errepidean marra bat marraztea eta eskora malgu batzuk ipintzea espazio hau automobilek inbaditu ez dezaten ziurtatzeko (urte batean hautsita egongo lirateke eskoren erdiak), edo plataforma bat eraiki liteke berex, beste kota batean, bereizteko neurri zurrunagoekin eta baita beste zoladura kolore batekin ere; bistan denez, garrantzitsua da inbertsioan egongo litzatekeen aldea.

Jarduera batzuetan zentzuzkoa da gainazaleko zoladuraren aldaketa azpiegitura guztiak hobetzeko eta berritzeko aprobetxatzea; azpiegitura horiek une honetan zein egoeratan dauden ez dakigunez, horiek berri behar ote diren ez dakigunez, ez dira kapitulu hauetan egiten den balorazioetara biltzen.

Balorazio honetatik at geratzen dira Proiektua erredaktatzeko ordainsariak, Obra Zuzendaritzarenak, Bisatu gastuak eta beste batzuk.

1.- TRAFIKOAREN ANTOLAMENDUA

Gure ustez norabide bakarreko bideen antolakuntzara mugatzen da jarduera; horretarako trafiko seinale bertikal batzuk ipiniko dira, seinale horizontalak marraztuko dira eta panel berriemaile batzuk ipiniko dira erabiltzaileei laguntzeko.

Gogora ekartzen dugu, berriro ere, balorazio honetatik at geratzen dela azpiegituren berritzea edo azpiegitura berriak ipintzea.

Bide nagusiarekin bat egiten duten kaleetako espaloiak ere hein bertsuan aldatu behar direla uste dugu.

Kontuan eduki behar da jarduera batzuk ezin abiarazi daitezkeela beste batzuei ekiten ez zaien bitartean; esate baterako, OLAONDO eta UROLA kaleen bidegurutzean Biribilgunea eraikitzen ez den bitartean ezin norabide bakarrekoa izan daiteke SANTI KUTZ kalea OLAONDO eta LAU-BIDE bitarteko atalean.

BALORAZIOA

1. A.- PATRIZIO ETXEBERRIA atala

Aintzat hartzen dugu A 30 moldeko tratamendua; bertan gurpildunentzako eremua eta soilik oinezkoentzako argi-paldeen bidez, zuhaitz lerro batez, jarlekuez eta eskoren bidez egingen da; zoruaren mailara jaisten diren eskorak ipintzeko kontu-sail bat jasotzen da komunitateko garajeetara sarrera izateko eta beste joan-etorri berezi batzuetarako. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zoladura berria kalean
- Argiteria berria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Eskora finkoak
- Zoriaren mailara jaisten diren eskorak
- Zuhaitzak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Kostua **MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (1.650 €) eurotan zehaztu da kaleko metro zuzeneko**, kalearen zabalera edozein dela ere, eta tratamendu honetara bilduko litzateke Elizatik SANTI KUTZ kaleraino luzatzen den tartea.

1. B.-SANTI KUTZ

Aintzat hartzen da LAU (4) metro zabalera kaleari eta BI metro eta HOGEI zentimetro (2,20 m) zabalera BIDEGORRIari leku egingo dien sekzioa; gainerakoa espaloiek hartuko dute.

Kontu-sail bat jasotzen da zoruaren mailaraino jaisten diren eskorak ipintzeko, egoera guztiz berezietan ibilgailuek BIDEGORRIA alderik alde zeharkatu ahal izan dezaten.

Ez da BIDEGORRIAREN kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espaloien zabaltzea
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Zuhaitzak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **LAUREHUN ETA HOGETA HAMAR (430 €/m) eurokoa da kaleko metro zuzeneko** (espaloien barne).

1. C.-SANTIKUTZeko lotura LAU-BIDE aldearekin

Aintzat hartzen da LAU (4) metro zabalerako kaleari eta BI metro eta HOGEI zentimetro (2,20 m) zabalerako BIDEGORRIARI leku egingo dien sekzioa; gainerakoa espaloiek hartuko dute..

Kontu-sail bat jasotzen da zoruaren mailaraino jaisten diren eskorak ipintzeko, egoera guztiz berezietan ibilgailuek BIDEGORRIA alderik alde zeharkatu ahal izan dezaten.

Ez da BIDEGORRIAREN kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espaloien zabaltzea
- Argiteria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Zuhaitzak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **EHUN ETA HOGETA HAMAR (130 €/m²)** eurokoa da kaleko metro zuzeneko (espaloi biak barne).

1. D.-KALE NAGUSIA, NAFARROA KALEA eta LAU-BIDE

Aintzat hartzen da guztiz oinezkoentzako bihurtzeko proposamena, baina zoladura LAU (4) metroko zabalera izango duen erdiko zerrendan sendotuko da, bertatik ibiliko dira zamalanak egiteko ibilgailuak eta horietan barrena ibiltzeko baimena dutenak.

Zoruaren mailaraino jaisten diren eskorak ipintzeko kontu-saila jasotzen da kalea ixteko edo, baimendutako zirkunstantzietan, sarbidea errazteko.

Ez da sareak berritzeko edo zerbitzu berriak ipintzeko kontu-sailik aurreikusi. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espazioaren zoladura
- Argiteria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Zuhaitzak
- Eskorak sarrera eta irteeretan.

Aurreikuspenen arabera, kostua **EHUN ETA HIRUROGEI (160 €/m²)** eurokoa da kaleko metro koadroko. Kopuru horrek gora egin dezake nabarmen, esate baterako, zoladurarako materialen edo argi-paldoen kalitatearen arabera. Gogora dezagun, berriro ere, aurrekontu horretatik at geratzen dela azpiegiturei dagokien lanen kostua.

1. E.- ARANTZAZU eta SAN INAZIO AUZOen arteko hiribidea

Aintzat hartzen da LAU (4) metro zabalerako bideari, zeharka aparkatzeko BOST metro eta HAMAR zentimetroko aparkalekuari –BIDEGORRIra ez sartzeko oztopoak barne– eta BI metro eta HOGEI zentimetroko (2,20 m) zabalerako BIDEGORRIari leku egingo dien sekzioa; gainerakoa espaloiek hartuko dute.

Kontu-sail bat jasotzen da zoruaren mailaraino jaisten diren eskorak ipintzeko, egoera guztiz berezietan ibilgailuek BIDEGORRIA alderik alde zeharkatu ahal izan dezaten.

Ez da BIDEGORRIaren kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espaloien zabaltzea
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **BERREHUN ETA BERROGEI (240 €/m) eurokoa da kaleko metro zuzeneko** (espaloï biak eta espaloï berria sestren mailara egokitzeko fabrika-obrak barne).

1. F.- SAN MARTIN AUZOko jaitsiera eta AITZONDO KALEA

Aintzat hartzen da LAU (4) metro zabalerako bideari, ahal den lekuetan BI metroko zabalera izango duen lerroko aparkalekuari eta BI metro eta HOGEI zentimetro (2,20 m) zabalerako BIDEGORRIari leku egingo dien sekzioa; espaloïak hartuko du gainerakoa.

Ez da BIDEGORRIaren kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espaloien zabaltzea
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST (175 €/m) eurokoa da kaleko metro zuzeneko** (espaloia zabaltzeko lanen kostua barne).

1. G.-AITZGORRI KALEA

Aintzat hartzen da sekzio oso aldakor hau, LAU (4) metro zabalerako bideari, ahal den lekuetan BI metroko zabalera izango duen lerroko aparkalekuari eta BI metro eta HOGEI zentimetro (2,20 m) zabalerako BIDEGORRIARI leku egingo baitie; gainera espaloi biak zabalduko dira.

Ez da BIDEGORRIAREN kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Espaloien zabaltzea
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **BERREHUN ETA BERROGEI (240 €/m) eurokoa da kaleko metro zuzeneko** (espaloi biak zabaltzeko lanen kostua barne).

1. H.-LATXARTEGI KALEA

Aintzat hartzen da sekzio oso aldakor hau, LAU (4) metro zabalerako bideari eta BI metro eta HOGEI zentimetro (2,20 m) zabalerako BIDEGORRIARI leku egiteaz gainera zabaldu egingo baitira espaloi biak. Zuzendu egiten da kalearen luzeranzko profila, eta erdialdean lorategi bat egokituko da kalearen alboetako eraikinen kota aldeak arintzeko xedean.

Ez da BIDEGORRIAREN kostua jasotzen, balorazio hori berex egingo da. Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Espaloien zabaltzea
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **MILA ETA ZORTZIEHUN (1.800 €/m) eurokoa da kaleko metro zuzeneko**, kalearen zabalera edozein dela ere (espalo biak zabaltzeko lanen eta luzeranzko profil jarraitua lortzeko indusketa lanen kostua barne).

1. I.- TELLERiarTE – BRINKOLA bidea

Bidea %50ean zabaldu daiteke, eta alde horietan HIRU (3) metro zabalerako bidea egokituko da gurpildunen trafikoarentzat eta BI (2) metro zabalerako beste bat oinezkoentzat; bide biak kota berean egongo lirateke, behar izanez gero horietara sartzeko aukera izateko.

Zorua mailaraino jaisten diren eskorak ipintzeko kontu-sail bat jasotzen da; gisa honetan egoiliarren ibilgailuek baizik ezin izango dute bertatik ibili.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Bidearen zabaltzea
- Atsedenlekuak, jarleku eta gisakoez hornituak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **LAUROGEITA HAMAR (90 €/m) eurokoa da bideko metro zuzeneko** (itxuraz bidearen %50ean bururatu ahal izango dira zabaltze lanak).

1. J.- OLAONDO – UROLA BIRIBILGUNEA

Aintzat hartzen dira HOGEITA LAU (24) metroko barne diametroa, gaineko zerrendarekin, zirkulaziorako ZORTZI (8) metroko eraztuna, espaloia eta bidegorria perimetro osoan, baita argiteria eta lorategiak ere.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Espaloiak eta bidegorria eraikitzea
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **BOSTEHUN ETA HIRUROGEI MILA (560.000 €) eurokoa da.**

1. K.- AIZTONAGA – D. AGIRRE BIRIBILGUNEA

Aintzat hartzen dira HOGEITA LAU (24) metroko barne diametroa, gaineko zerrendarekin, zirkulaziorako ZORTZI (8) metroko eraztuna, espaloia eta bidegorria perimetro osoan, baita argiteria eta lorategiak ere.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Espaloiak eta bidegorria eraikitzea

- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Jarlekuak
- Zakarrontziak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **BOSTEHUN MILA (500.000 €) eurokoa da.**

1. L.-BRINKOLARA JOATEKO BIRIBILGUNEA

Aintzat hartzen dira HOGETA LAU (24) metroko barne diametroa, gaineko zerrendarekin, zirkulaziorako SEI (6) metroko eraztuna, bidegorria, argiteria eta lorategiak.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Bidegorriaren eraikuntza
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **LAUREHUN ETA HAMABOST MILA (415.000 €) eurokoa da.**

1. M.- TELLERIARTErako SARBIDEA

Aintzat hartzen da hirugarren bidea-espazioa eraikitzea bidegorriari eta argiteriari leku egiteko.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Bidegorriaren eraikuntza
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea

- Argiteria
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA (330.000 €) eurokoa da.**

1. N.- AIZTONAGA – AITZGORRI BIDEGURUTZEA

Aintzat hartzen dira bihurtzearen erradioa luzatzea, sestrak zuzentzea eta ezkerretara egiteko eta lorategiak egokitzeko espazioak sortzea.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **EHUN ETA HEMEZORTZI MILA (118.000 €) eurokoa da.**

1. Ñ.- SAN MARTINetik AIZTONAGARA egiteko BIRA

Aintzat hartzen dira bihurtzearen erradioa luzatzea, sestrak zuzentzea eta lorategiak antolatzea.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria

- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **HIRUROGEI MILA (60.000 €) eurokoa da.**

1. O.- URTATZA – LAU-BIDE arteko LOTUNEA

Aintzat hartzen dira bihurgunearen erradioa luzatzea, sestrak zuzentzea eta espaloia egokitzea.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Espaloiaaren egokitzapena
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **HIRUROGEITA HAMAR MILA (70.000 €) eurokoa da.**

1. P.- ITXAROPEN – AIZTONAGA BIDEA

Bide honek aukera sorta oparoa eskaintzen du, eta zaila da hurbilketa bat egitea neurriak behar bezala ezagutzen ez badira, bidearen ezaugarriak ezezagun badira eta, ondorioz, sekzioak eskatzen dituen lur-mugimenduen, fabrika-obren eta hornitu beharreko azpiegituren ingurukoak zehaztu gabe badaude.

Egoera honetan bi balorazio eskaintzen ditugu, muturrekoak biak, bide eredu bat ala bestea aukeratzearen arabera.

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan lehenengo balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Balizko Fabrika-Obren parte proportzionala
- Aparkatzeko zerrenda
- Espaloiak eta Bidegorria
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Basoko Bidearekiko lotura
- Argiteria
- Jarlekuak eta zakarrontziak
- Zuhaitzak
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **BOST MILA ETA ZORTZIREHUN (5.800 €/m) eurokoa da metro zuzeneko.**

Honako kontzeptu hauek eduki dira kontuan bigarren balorazioa egiteko orduan:

- Zabalgunearen egokitzapena
- Balizko Fabrika-Obren parte proportzionala
- Espaloia eta Bidegorri
- Gurpildunen zirkulaziorako bidea
- Argiteria
- Seinale bertikalak eta horizontalak

Aurreikusitako kostua **HIRU MILA (3.000 €/m) eurokoa da metro zuzeneko.**

2.- OINEZKOENTZAKO EREMUAK

Oinezkoentzako Eremuetako interbentzio mota desberdinen balizko kostuaren balorazioa egiteko orduan, espazio zolatuen eta berdeguneen eta olgetarako eremuen arteko proportzioak egungoaren antzekoak izango direla kontsideratzen dugu; hau da, ez da emendatzen zolatutako gainazala, eta beraz, aparkatzeko espazioa egungoaren pareko izanen da. Une honetan ez dago garbi zein diren aparkalekuen benetako beharrak, eta beraz, gisa honetako interbentzio bati ekin baino lehen aparkalekuei buruzko Azterketa sakona egin beharko da, hark adieraziko baitigu egiteko horretarako espazioa zabaldu beharra dagoen ala murriztu daitekeen.

BALORAZIOA

2. A.- ERVEN

Interbentzioaren ostean geratuko den gainazal zolatua gaur egungoaren antzekoa izango da. Balorazioan jasota daude zolatutako espazioak funtzio berrietara egokitzeko lanak, zoladuraren berritze lanak eta berdeguneen egokitzapen lanak. Une oro ahalegindu behar da berdegune horiek gutxieneko neurri batzuk izan ditzaten. Balorazioan aintzat hartzen dira zuhaitz berriak aldatzeko lanak, jarlekuak, zakarrontziak eta gisakoak. Aitzitik, baloraziotik at geratzen dira azpiegitura mota ororen berritzeak, aldaketak edo egokitzapenak.

“Erven” ereduaren arabera 15.000 m²-ko gainazal bakoitzean haurrentzako jolas eremu bat egokituko da, bertako zoladura malgua barne; horretaz gainera, bestelako tratamendua jasoko dute zoruek, zoladuran “marraztutako” jarduerak eta gisakoek.

Baldintza hauek beteaz, **HOGETA HAMABOST (35 €/m²) euroko kostua** aurreikusten da “erven” bateko metro koadroko.

3.- BIDEGORRIAK

Jarduera txirrinduen zirkulaziorako bidearen eta beste trafikoen zirkulaziorako bidearen artean bereizgarri bat ipintzera mugatzen da. Era berean, beharreko seinaleak ipiniko dira, seinale bertikalak eta marraztutako seinale horizontalak, zoruan. Gisa berean, panel berriemaile batzuk ipiniko dira erabiltzaileei gauzak erraztearren.

Gogora ekartzen dugu, berriro ere, balorazio honetatik at geratzen direla egungo azpiegiturak berritzeko lanak edo azpiegiturak paratzeko lanak.

Kaleen bidegurutzeetan aintzat hartzen da espaloiak eta galtzadak hein bertsuan aldatzea.

Kontuan eduki behar da bidegorri batzuk ezin izango direla ireki Trafikoaren Antolamenduan jasotako norabide aldaketak edo obra batzuk bururatu daitezen arte. Izan ere, norabide aldaketa hau justifikatzeko garaian bidegorriei leku egingo lieketen espazioak lortzeko beharra aipatzen da.

Azpiegiturak ez ukitzeko xedean, egungo egoeran eskua ahalik eta gutxien sartu nahi dugu, bestela guztiz irauli beharko bailitzateke egungo egoera (esate baterako urak biltzeko eta bideratzeko azpiegiturak). Honenbestez, beharreko obrak gutxienera murrizten dira, ibilgailu motordunek bidegorrien espazioa ez inbaditzeko moduko obretara.

Bidegorriak balorazioetatik at geratzen dira oinezkoen eremuetan, 30eko Eremuetan, ERVEN eremuetan eta gisakoetan, horietan bateragarriak baitira oinezkoen eta txirrindularien trafikoak; gehienez ere, lehentasun batzuk adierazteko pinturak erabili beharko lirateke, edo zoladurak bestelako kolorez pintatu. Guk uste dugu kale horiek zolatzeko aurrekontuetara jaso behar direla gastu horiek.

Antzeko arrazoiek tarteko, baloraziotik at geratzen da txirrinduentzako aparkalekuen kostua.

BALORAZIOA

3. A.- BIDEGORRIA EGUNGO BIDEAN

Balorazioan aintzat hartzen dira bereizgarri malguak (eskorak), espaloien eta bidegurutzeen arteko loturak, seinale bertikalak eta horizontalak eta egungo egoerari egokitzeko obra txikiren bat.

Baloraziotik at geratzen dira zintarri bereizgarri mota guztiak eta zoladura berriak.

Aipatutako baldintzekin aurreikusitako kostua **HIRUROGEITA HAMAR (70 €/m) eurokoa da** metro zuzeneko.

3. B.- BIDEGORRIA ZOLADURA BERRIAREKIN

Balorazioak aintzat hartzen ditu bereizgarri malguak (eskorak), espaloien eta bidegurutzeen arteko loturak, seinale bertikalak eta horizontalak eta zoladura berri baten (konbentzionala) eraikuntza, zintarri bereizgarri bat barne. Argiteria baloraziotik at geratzen da.

Aipatutako baldintzekin aurreikusitako kostua **EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR (170 €/m) eurokoa da** metro zuzeneko.

3. C.- BIDEGORRIA PLAZAOLA kalearen ondoan

Antza baranda aldatuko da zabalera handiagoa lortzeko, argiteria aldatuko da, jarlekuak lekuz aldatuko dira eta dagozkion seinaleen bidez bereizi egingo dira erabilerak.

Aipatutako baldintzekin aurreikusitako kostua **HIRUREHUN (300 €/m) eurokoa da** metro zuzeneko.

3. D.-BIDEGORRI guztiz Berria

Balorazioan aintzat hartzen dira lur-mugimenduak, fabrika-obra txikiren bat, euri urak bideratzeko neurriak, zoladura dagozkion geruza guztiekin barne eta argiteria.

Aipatutako baldintzekin aurreikusitako kostua **LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (450 €/m) eurokoa da** metro zuzeneko.

3.- GARRAIO PUBLIKOA

3. A.- GELTOKI BERRIA

Balorazioan aintzat hartzen dira 2. Bideko (MADRILera bidean) nasaren eraikuntza, burdinbide berriarena eta egungoarekiko lotura, trenak gurutzatzeko beharrezkoak diren bide-aparailuak, 1. Bideko (IRUNera bidea) nasa berritzeko lanak, eraikin txiki (100 m²-koa) baten eraikuntza bertan bidaia-txartelak erosteko eta gisakoetarako, Geltokira iristeko igogailu bat, nasako estalkia eta itxitura, zakarrontziak, jarlekuak eta multzorako argiteria.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua, instalazioari zerbitzua emateko beharrezkoak diren panel fotovoltaikoak barne, **MILIOI BAT SEIEHUN MILA (1.600.000 €) eurokoa da.**

3. B.- IGOGAILUA LATXARTEGIn

Gutxi gora-behera 20 metrokoa da gainditu beharreko altuera, eta ustez igogailu inklinatu batez gaindituko da tarte hori. Balorazioan aintzat hartu dira igogailua instalatzeko gastu guztiak, itxaroteko eta harrera egiteko barruti txiki batzuk eta behar den argindarra sortzeko panel fotovoltaikoak.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua **BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (950.000 €) eurokoa da.**

3. C.- IGOGAILU INKLINATUA URTATZAn

Gutxi gora-behera 40 metrokoa da gainditu beharreko altuera, eta ustez igogailu inklinatu batez gaindituko da tarte hori. Balorazioan aintzat hartu dira igogailua instalatzeko gastu guztiak, itxaroteko eta harrera egiteko barruti txiki batzuk, tarteko geraleku batekin, eta panel fotovoltaikoak aipatutako barrutien gainean, behar den argindarra sor dezaten.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua **BI MILIOI EHUN MILA (2.100.000 €) eurokoa da.**

3. D.- IGOGAILU BERTIKALA ITXAROPEN aldean

Gutxi gora-behera 10 metrokoa da gainditu beharreko altuera, eta ustez igogailu bertikal batez gaindituko da tarte hori. Balorazioan aintzat hartu dira igogailua instalatzeko gastu guztiak, itxaroteko eta harrera egiteko barruti txiki batzuk eta behar den argindarra sortzeko panel fotovoltaikoak, barrutien gainean ipintzekoak.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua **BERREHUN MILA (200.000 €) eurokoa da.**

3. E.- ZORUPEKO APARKALEKUA

Antza altuera aldakorreko aparkalekua eraikiko da, bertan, alde batean, auto-karabanak uzteko modukoa. Balorazioan aintzat hartzen dira sarrerak, kontrolatzeko mekanismoak, aireztapena, suteen aurkako zerbitzuak eta gisakoak; aparkaleku-plaza guztiak irekiak izango dira.

Balorazioan ere aintzat hartzen da gainazaleko urbanizazioa, kalitate handikoa, skate bat barne.

Aprobetxamendurik hoberena 30 m²-koa litzateke automobil-plaza bakoitzeko.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua **MILA ETA BERREHUN (1.200 €/m²) eurokoa izan liteke metro koadroko**, betiere oin bakarreko aparkalekua egiten baldin bada. Egokiago irizten bada oin biko aparkalekua egitea, aurreikusitako kostua **BI MILAL (2.000 €/m²) eurokoa litzateke metro koadroko**.

3. F.- BUS GELTOKIA INDUSTRIALDEAN

OLAONDOKo biribilgunea eraikita behar duela ulertzen da. Geltokian bi nasa-barren egongo lirateke, parte batean estalkiarekin, jarlekuez hornituriko aterpetxo bat, panel fotovoltaikoen bidezko berokuntza eta alde honen urbanizazioa. Gure ustez oso komenigarria da lan hau biribilgunea eraikitzen duten aldi berean egitea.

Adierazitako baldintzekin aurreikusitako kostua **EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA (165.000 €) eurokoa da**.

SEINALEAK

Debekatutako Norabidea adierazteko seinaleak

Derrigorrezko Norabidea adierazteko seinaleak

Panel berriemaileak

Seinale horizontalak(geziak)

Egungo seinale horizontalen desagerraraztea

BIDE BERRIAK

Domingo AGIRRE eta JUANASTEGI arteko bidea

OINEZKOENTZAKO IBILBIDEAK:

ESPALOIEN ERAIKUNTZA:

Metro zuzenak zintarrietan

M² espaloietan

Zuhaitz unitateak

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

BIDEGORRIAK:

BIDEGORRIEN ERAIKUNTZA:

M² Bidegorritan

M zintarri bereizgarrietan

BIDEAK BIDEGORRI BIHURTZEKO LANETAN:

Eskora malguen unitateak

M. zerrenda edo zintarri bereizgarrietan

ERVEN:

ESPALOIEN ERAIKUNTZA:

M² zolatutako gainazaletan:

M² lorategi aldeetan:

M² azpiegiturak berritzeko lanetan:

Jolas unitateak

BIRIBILGUNEAK:

OLAONDO ZEHARRA – UROLAko BIRIBILGUNEA:

DOMINGO AGIRREko BIRIBILGUNEA:

BRINKOLAra IRISTEKO BIRIBILGUNEA

HOBKUNTZA TELLERIARTErako sarbidean

BIDEEN EGOKITZAPENA:

M² egungo zoladuren eraispen lanetan

M² lur-eremuak egokitzen

M² aglomeratuarekin zolaturik

M bideko zintarrietan

M lorategietako zintarrietan

ZOLADURA OINEZKOENTZAKO EREMUETAN:

M² lur-eremuak egokitzen

M² espaloietan:

Zuhaitz unitateak

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

Finkoak diren eskora unitateak

Zoruaren mailaraino jaisten diren eskora unitateak

IGOGAILU INKLINATUAK:

IGOGAILU BERTIKALAK:

ZOLADURA 30eko EREMUETAN:

M² lur-eremuak egokitzen

M² espaloietan:

Zuhaitz unitateak

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

Finkoak diren eskora unitateak

APARKALEKUEN ERAIKUNTZA:

M² egituran

M² urbanizazioan

Skate unitatea

BUS GELTOKIAREN GAITZEA:

M² lur-eremuak egokitzen

M² espaloietan:

Zuhaitz unitateak

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

Eguzki panel fotovoltaikoaren unitateak

ALDAKETA GERALEKUAN:

Bide bakarreko aparailu baten unitatea

Bide bikoitzeko aparailu baten unitatea

M burdinbidearen eraikuntzan, dena barne

Motelgailu unitatea

M² lur-eremuak egokitzen

M² nasetan

Geltokiko eraikin unitatea

Igogailu unitatea

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

TELLERiarTE – BRINKOLA bidearen EGOKITZAPENA

M² lur-eremuak egokitzen

M² espaloietan:

Zuhaitz unitateak

Zakarrontzi unitateak

Jarleku unitateak

Finkoak diren eskora unitateak

Zoruaren mailaraino jaisten diren eskora unitateak

Konexio interfonikoaren unitatea

Eguzki panel fotovoltaikoaren unitateak